

MENDARO / Gaur udal liburutegian 'Marilo betilo' ipuin kontaketa izango da behibi's taldearekin

EGAÑA/MENDARO. DV. Gaur arratsaldeko 6etan, Udal liburutegian, ipuin kontaketa izango da: Marilo betilo (Ipuin kontaketa), aktorea eta txontxongiloak, taldea: Behibi's taldea. Ikuslegoaren adina: 3-6 urte. Sinopsia: Marilo oso lotia da. Edozein, momentu du ona lokuluskaren bat egitego. Berarekin bizi diren lagunek, Kala etas Titak, heltzen direnean, esnatu egiten dute. Izan ere, lotan ez dagoenean Marilok bet izaten baitu ipuin edota istorio dibertigarriren bat bisitan etortzen zaizkion guztiei kontatzeko. Iraupena: 45 minutu.

Datorren azaroaren 25ean Dar Dar taldearen Egizu lo, Tartalo antzezlan izango da Udalbatza aretoan: ikuslegoaren adina 6 urtearte. Sinopsia: Oihana Tartaloren kobazuloan preso dago. Tartalok jan ez dezan, mota guztietako trikimailuak erabiltzen saiatuko da eta azkenean, egokiena aurkitiko du: ipuinak. Kontatu kontari, Tartalo lo dagoen bitartean, Oihana lezetik ihes egiten saiatuko da.. Lortuko ote du?. Iraupena: 45minutu.



Ipuin kontalari bat haurrei ipuina kontatzen. [EGAÑA]